



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2025eko APIRILAREN 3AN EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2025eko apirilaren 3an, Alkizako Udaletxean, goizeko 11.30etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Unai Sorarrain Urruzola Urruzola
	Nagore Arizeta Garmendia
	Jose M <sup>a</sup> Aranzabe Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ana Agesta Echecolonea eta  
Gillermo Otegi Zubillaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - ✓ 2025eko urtarrilaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
  - ✓ 2025eko martxoaren 4an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2024ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.**
5. **Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2024 ekitaldian jasotako diru-laguntzaren zuriketa.**
6. **2025 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **Udal langileen 2025 urteko opor egutegiaren onespena.**
8. **Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2024ko 1. eta 2. hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada**
9. **Izfe SA Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren luzapenaren onespena.**
10. **Diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketa puntuala.**
11. **Beste batzuk.**
12. **Moziak, erreguak eta galderak.**



ALKIZAKO UDALA

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2025eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2025eko martxoaren 4ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 10/2025tik 19/2025 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

NAGORE ERRAZQUIN	326,70
GOIENER	146,77
GOIENER	812,89
GOIENER	35,02
GOIENER	767,33
GOIENER	55,15
GOIENER	87,60
GOIENER	39,49
GOIENER	1.042,05
GOIENER	223,86
GOIENER	41,67
GOIENER	12,18
GOIENER	430,49
GOIENER	21,40
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	148,88



ALKIZAKO UDALA

SGAE	244,25
SGAE	269,98
SGAE	51,01
MAQUELSA	79,34
TOLOSALDEA GARATZEN	3.971,00
OSCAR GALINDO	136,31
EBA ERKIZIA	2.178,80
IRATI APAOLAZA	300,00
GISAT.S.COOP.	229,45
JUAN JOSE ARREGI	356,95
ARGITU ASESORES	272,30
CALPARSORO INDUSTRIAL	296,22
DEKOARBERAS	63,86
SOLRED	194,77
KOPI&EUSKO TONER	456,00
SUMINISTROS ZELAIA	329,58
GUREAK MARKETING	1,28
DIONISIO ORMAZABAL	23,84
MAGMA MIA KOOP. ELK. TXIKIA	1.089,00
ORANGE	266,83
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	215,38
MAIXA LIZARRIBAR	345,00
KUKU-LORE LIBURUDENDA	29,79
KUKU-LORE LIBURUDENDA	44,82
ANTENAS ADARRA	624,30
CONSULTORES DE GESTION PUBLICA	3.025,00
OMAR ARNALDO CASTRO	6.987,75
MAQUELSA	117,78
GASOLEOS ALKORTA	30,25
AKETEGI DENDA	32,10
DEKOARBERAS	60,98
FUNDIBIDE	464,58
IZFE	2.044,67
TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA	1.149,81
JUAN JOSE ARREGI	356,95
GOIENER	50,65
GOIENER	1.076,13
GOIENER	157,31



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	31,35
GOIENER	575,58
GOIENER	46,91
GOIENER	328,73
GOIENER	19,90
GOIENER	766,67
GOIENER	10,62
GOIENER	33,35
GOIENER	378,19
ORANGE	265,49

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **34.271,99** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2024KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren batzarkideei 2024 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2025/18 zenbakia duen eta 2025ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

#### **2025-18 DEKRETUA**

Udal honen 2024ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2024ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2024-12-31n:		162.015,75
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2024-12-31n:		82.981,97
Aurrekontuko zordunak :	81.196,64	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.785,33	



ALKIZAKO UDALA

- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2024-12-31n:		93.666,80
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	23.722,28	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	69.944,52	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		151.330,92
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		151.330,92

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	81.355,15
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	8.372,08
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	53.402,49
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	143.129,72

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	0,00

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



ALKIZAKO UDALA

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

## **TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.-k AURKEZTURIKO 2024 EKITALDIAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAILEAREN ZURIKETA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2024 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Alkizako Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2024 ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

## **2025 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2025 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, familia ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2025eko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2025eko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean 31 hobari eskaera egin direla, hauetatik, 20 eskaera familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinaren gaineko zergan, eta 11 eskaera, familia ugaria eta ibilgailuaren motorraren arabera izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik, hogoita hamaika eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zehazten diren zergen hobari eskaera hauek onestea:

TITULARRA	EGITATE ZERGAGARRIA	HOBARIA
A.G.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
M.D.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
J.E.A.U.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
J.M.A.U.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.M.A	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
I.M.L.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
C.S.L.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
I.I.G.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
J.R.E.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
J.S.Z.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
V.S.L.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.U.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
P.M.F.D.L.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
X.G.E.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
U.O. L	<i>IBI-FAMILI UGARIA</i>	%30
M.K.M.A.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.A.S.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.Z.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.U.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.O.L.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
J.E.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.A.S.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.U.Z.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
X.G.E.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
G.G.A.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.E.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
P.M.F.D.L.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.B.D.	IBILGAILUAK-MOTORRAREN ARABERA	%50

BIGARRENA: Erabaki hauen berri interesatuei ematea.



ALKIZAKO UDALA

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**UDAL LANGILEEN 2025 URTEKO OPOR EGUTEGIEN ONESPENA**

Ikusirik Udal langileek aurkeztu dituztela 2025 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileek aurkezturiko 2025 urterako opor egutegi onespena.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2024KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2025 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 14.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 11.000,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2025 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 11.000,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

BIGARRENA.- 14.000,00 eurotako gastua onartzea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREKIN**



ALKIZAKO UDALA

## **SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENAREN ONESPENA**

Ikusita, IZFE, S.A. eta Alkizako udalaren artean hitzarmen bat sinatu zutela 2021eko uztailaren 7an, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Alkizako Udalari zerbitzu informatikoak emateko.

Ikusita, aipatutako hitzarmenaren hamahirugarren klausulan ezartzen dela, hitzarmenak lau urteko indarraldia izango duela, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta, epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dutela hura luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hura azkentzea.

Ikusita Hitzarmenaren indarraldiko lehen lau urteetan emaitza onak lortu direla, beraz, alderdiek egokitzat jotzen dute hitzarmenaren indarraldia luzatzea.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez ondorengoa

**ERABAKITZEN DU**

**LEHENA:** Onartzea, lau urtez luzatzea Alkizako Udalaren eta Izfe SA - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, udalari zerbitzu informatikoak emateko xedea duena.

**BIGARRENA:** Onartzea luzapen hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izatea. Luzapen-epaia amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena iraungitzea.

**HIRUGARRENA:** Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea, aipatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzeko.

**LAUGARRENA:** Hitzarmenaren luzapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki hauek Izfe SA - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari jakinaraztea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA PUNTUALA**



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Alkizako udalak, 2023ko urtarrilaren 21ean eginiko udalbatzarrean, Alkizako udaleko 2023-2025 Diru-laguntzen Plan Estrategikoari hasierako onespena eman ziola.

Ikusita, espedientea jendaurrean egon zela hogeita hamar eguneko epean, inolako alegaziorik aurkeztu ez zenik. Hori dela eta, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49 artikulua xedatzen duenaren arabera, artean, behin behineko zen akordioa behin betikoa bihurtu zen, eta hori 2023ko apirilaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera du; hori dela eta, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek onartu beharra daukate beren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra beste urrats bat da sistema Ekonomikoaren hobekuntza eta arrazionalizazioan.

Legearen printzipioetako bat da gardentasunarena; printzipio horrek, Legean artikulatzen diren tresna anitzekin batera, eraginkortasun- eta eragingarritasun mailen gehikuntza bat dakar berekin, modu zuzenean ekarri ere, diru-laguntzen gastu publikoaren gestioan.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horrezaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako teilakatzeak galaraziko lirakeke.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aginduta dago egin dadila Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, urte anitzeko izaera duena, diru-laguntzak edo Udalbatzak egiten dituen lankidetzak hitzarmenak sortu aurretik.

Diru-laguntzen plan estrategikoa aurreikuspen bat besterik ez dela kontuan harturik, aldaketak izan litezke; nolana ere, aldaketa horiek egokitu beharra daukate Legera, Ordenantza espezifikora, une bakoitzean dagoen errealitate sozialera eta, batik bat, dagokion ekitaldiko aurrekontuetara.



ALKIZAKO UDALA

Ikusita, une honetan, aldaketa batzuk sartu nahi direla indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2023-2025 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 1. aldaketa onartzea, 6. lerro estrategikoan, kultura gaiak, honako programa hauek sartuz:

1. lerro estrategikoa: Kultura gaiak	
Aurrekontu aplikazioa (2025)	1 0000 480.334.00.01
Helburua, hartzailea	Ur Mara
Diru-laguntza mota	Zuzena-izenduna eta puntuala
Zenbatekoa (2024)	1.200,00 €

1. lerro estrategikoa: Kultura gaiak	
Aurrekontu aplikazioa (2025)	1 0000 480.334.00.01
Helburua, hartzailea	Tolosaldeko Ahots gazteen elkarte
Diru-laguntza mota	Zuzena-izenduna eta puntuala
Zenbatekoa (2024)	1.000,00 €

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta web orrian argitaratuz, nahi duenak espedientea aztertu eta bere kasuan, alegazioak edo erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe hori igarota alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako Plan Estrategikoaren 1. aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **11.1. ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA**

Ikusirik Alkizako Sormenaren Kabia Bekaren 2025 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.



ALKIZAKO UDALA

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia Bekaren deia egitea 2025. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2025eko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2025eko ekitaldiko epaimahaia onartzea.

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren 2025eko edizioan hautagaiak aurkezteko epea maiatzaren 5etik ekainaren 6ra bitartean indarrean egongo da, bi datak barne.

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura egongo dira [www.alkiza.eus](http://www.alkiza.eus) eta fagus-alkiza.eus web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

## **11.2. GRAP-HIK! ARTEA ETA NATURAREN INGURUKO JARDUNALDIAK EGITEKO NAHIA PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Ur Mara Elkartek eginiko eskaera, non dioen, Grap-hik! Artea eta naturaren inguruko jardunaldiak antolatzeke asmoa duela, eta hauek aurrera ateratzeko Alkizako udalari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENGOA.- Ur Mara Elkarteari 1.200,00 eurotako diru-laguntza burutzea 2025eko Udal aurrekontuetako 480.334.00.01 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 1.200,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Ur Mara Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **11.3.DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, ALKIZAN ANTOLATU BEHAR DEN NATURAREN DOINUAK IV. EDIZIOAREN GASTUAK FINANTZATZEKO**

Ikusirik Ahots gazteen Elkarteari eginiko eskaera, non dioen, 2025eko ekainaren 6tik 8ra Naturaren doinuak IV. Edizioa antolatzeko asmoa dutela, eta ekitaldi hau aurrera eramateko Alkizako udalari diru-laguntza eskaera egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- Ahots gazteen Elkarteari 1.000,00 eurotako diru-laguntza burutzea 2025eko Udal aurrekontuetako 480.334.00.01 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 1.000,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Ahots gazteen Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

### **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

### **12.1. EHUN-ek AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA**



ALKIZAKO UDALA

Ikusita, EHUN-ek aurkezturiko mozioa, non ondorengoa dioen:

*“Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak. Udalek inork baino hobeto ezagutzen dituzte herritarren taupada eta beharrak. Hala ere, askotan, herritar guztion interesak babesteko erremintarik gabe daudela uste dugu. Gehiegitan, legediak, denon interesei beharrean, gutxi batzuen interesak babesteko eginak baitaude. Udalen beharretatik urrun sortzen da legedia. Zer esanik ez Euskal Herriko udalen kasuan.*

*Udalak herritarren interesak babesteko baliabiderik gabe daude sarriegitan. Ehunetik uste dugu, udalek herritar guztion zerbitzura dagoen legedia behar dutela; horrela bakarrik egin ahalko baitute inongo mugarik gabe herritar guztien alde. Baina Ehunetik uste dugu ere, legedi herritar hori espainiar eta frantziar Estatuetan ezinezkoa dela lortzea.*

*Horregatik, Udaleko alderdi guztiei 3 puntu dituen mozio hau eztabaidatu eta onartu dezatela eskatzen diegu:*

**1.-Udal honek baieztatzen du espainiar eta frantziar Estatuaren parte garen bitartean ezin izango dugula herritar guztien aldeko legedirik aurrera atera. Ondorioz, Euskal Errepublika herritar gurtion ongizaterako derrigorrezko erreminta dugula diogu.**

**2.-Errepublika hau, eskubide guztiak denontzat ziurtatzeko derrigorrezko erreminta dela diogu, beraz.**

**3.-Gurti horregatik Udal honek bere burua Euskal Errepublikaren parte dela deklaratzeko du.”**

Gaia aztertutik, Udalbatzak, aho batez, EHUN-ek aurkezturiko, mozioa onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 12.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

